

Aetz Etxart Sarasola
(2004 Urdiñarbe, Xiberoa)

GAZTETARZÜNA

Doinua: Aberastarzün izigarria
Neurria: Lau puntuko handia (ip) / Zortziko handia (hg)

1 18 urte beterik egün aintzinean* hainbat mündü **berri**
emozioneen gora beherak zonbat nigar eta **erri***
ezagütza eta sentsazio ezezagünez **egarri**
adin hori beita oroentako libertatearen **ütürri***.

2 Autoarekin bidetan gainti üdüri giren **imortala**
etxea non güni ahatzerik* bizi nomadak **bezala**
aitamekilan kexaldi franko beti ezin konpont **behala***
bena oroekin onsa joaiteko egitez egin **ahala**.

3 Nolakoa niz, ni nor ote niz zer da ene **eginkizüna**
pentsa ta pentsa bürüan üngürüka* galto oroen **oihartzüna**
ohartü arte ez dela beti bizia **koloredüna**
zonbaitetan zelüa urdina bestetan gaüa **ülüna**.

4 Bakotxak atzamaiten beitügü gütan zerbait **berezia**
ahatze* gabe nuntik jin giren ta zer dügün **ikasia**
ohartü arte entzün behar dela gure barne **poesia**
ahal bezain irus izatez beti llabürra beita **bizia**!

* ***aintzinean*** = *aurrean*
erri = *irri*
ütürri = *iturri*
etxea non güni ahatzerik = *etxea non genuen ahantzirik*
behala = *berehala*
üngürüka = *inguruka, itzulika*
ahatze = *ahantzi*